

**2018. URTEKO KIROL JARDUERA BEREZIAK FINANTZATZEKO
OINARRI ESPEZIFIKOAK - ESPARRUA: KIROLA**

| | |
|---|--|
| UDAL AREA-SAILA-ERAKUNDEA: | Kirol Patronatua |
| INSTRUKTOREA: | Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria) |
| BALORAZIO BATZORDEA | Irune Ormaetxea (Amaia Elorza ordezkoa), Aritz Abaroa (Pedro Bilbao ordezkoa) Xabi Ortuzar (Sergio Ugalde ordezkoa) Itxaro Zabala |
| DIRU-LAGUNTZA ARLOA: | Bermeon antolatzen diren kirol jarduera bereziak finantzatzeko diru-laguntza programa |
| KODEA: | 2018/04-02 |
| AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA: | 21.000 €. PARTIDA 00000-34120-4890102 |
| HELBURUA: | <ul style="list-style-type: none"> • Herri osoarentzat, jarduera arruntetik haratago antolatzen diren jolas izaerako kirol jarduera berezien eta/edo noizean behingo jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edota gehigarria eskatzen dutenak. • Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu. • Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko. |
| BALORAZINO ERIZPIDEAK: | <ol style="list-style-type: none"> 1.- Kirol ekintzaren aurkezpena (dokumentazioa). 2.- Kirol ekintzaren iraupena. 3.- Ikusleen erantzuna. 4.- Partaidetza aldetik: - parte hartzaile kopurua eta – nori zuzenduta dagoan. 5.- Kirol ekintzaren izakerea. 6.- Aurrekontua: finantziazio mailea eta argitasuna. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa kontuan hartuko da. 7.- Diziplina horri buruz aurkeztutako proiektuen kopurua. |
| ESKARIAK ETA AURKEZTEKO EPEA: | Diru-laguntza emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra. |



| | |
|---|--|
| | <p>Eskariak aurkezteko epea urriaren 31ra artekoa izango da, honeek oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diranetik hasita.</p> <p>Horrezaz ganera, honeek izango dira aurkeztu beharreko dokumentuak:</p> <ul style="list-style-type: none">• IFKren fotokopia edota NANaren fotokopia persona fisikoa balitz• Ekintzearen aurrekontu zehatza, agertu beharko dau ekintza gauzatzeko zein neurri ekonomiko daukan (kuotak, bestelako dirulaguntzak, eskari zehatza, etab.) (1go ERANSKINA) |
| <p>DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA:</p> | <p>Dirulaguntza berezien onuradunak ekintzako dirulaguntzearen justifikazioa egin beharko dau, honeek dokumentuak ekarrita, ekintza egin eta hiru hilebeteko epean.</p> <ol style="list-style-type: none">1. Ekintzearen memoria: egindako ekintzearen garapena, balorazioa, lortutako helburuak eta ebaluazioa, balantze ekonomikoa, gastuak eta diru sarrerak barne, bestelako dirulaguntzak. (II. ERANSKINA) <p>*Dirulaguntzea ezingo da erabili kirolariei ordaintzeko, primetarako, oparietarako, protokolo ekintzetarako eta bazkarietarako.</p> |
| <p>ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:</p> | |

